

INFORMAZIO OHARRA

Eusko Ikaskuntza eta El Diario Vascoren arteko hitzarmena

Akordioak lankidetzeta-esparru bat ezartzen du bi erakundeen artean, eduki zehatzak eta kalitatezkoak zabaltzeko

Donostia, 2023ko martxoak 8. Eusko Ikaskuntzako lehendakari Ana Urkizak eta El Diario Vasco egunkariko zuzendari David Tabernak hitzarmen bat sinatu dute gaur. Akordio horren bidez, bi erakundeek adierazi dute elkarlanean aritu nahi dutela talentua sustatzen eta beren arloetan jakintza trukatzeko.

Hitzarmenak hiru urteko iraupena izango du, luzatu ahal izango dena, eta Eusko Ikaskuntzak egindako lana zehaztasunez zabaltzeko lankidetzeta-esparrua ezartzen du, bereziki egoera soziokulturalari eragiten dioten gaiak gizarteari helarazteko. Era berean, bi erakundeek egokitzat jotzen dute harreman-sare kualifikatu bat eratzea, zehaztasun eta kalitatezko edukietan sakontzeko eta El Diario Vasco informatzeko duen konpromisoari jarraipena emateko.

Eranskinean zehazten den bezala, El Diario Vasco egunkariak Eusko Ikaskuntzaren jarduera eta proiektu nagusien berri emango du euskaraz eta gaztelaniaz, eta 2024rako aurreikusita dagoen Eusko Ikaskuntzaren hurrengo Kongresuari estaldura emango dio, egokitzat jotzen duen eran. Bestalde, Eusko Ikaskuntzak elkarrizketen edo iritzi-artikuluen bidez elikatuko du egunkaria, eta adituen identifikazioan lagunduko du, zehaztuko diren gaitetan sakontzeko.

Hitzarmenaren arabera, El Diario Vascoren eta Eusko Ikaskuntzaren ordezkariak kalitate akademikoari, ikerketa-metodologia berritzaile eta egokiak aplikatzeari eta proiektuen bideragarritasunari laguntzeko deitzen diren lan-batzordeetan parte hartuko dute. Hitzarmenaren jarraipen batzorde bat ere eratuko da eta gutxienez urtean behin bilduko da.

NOTA INFORMATIVA

Convenio entre Eusko Ikaskuntza y El Diario Vasco

El acuerdo establece un marco de colaboración entre ambas entidades dirigido a ahondar en la difusión de contenidos de rigor y calidad

Donostia-San Sebastián, 8 de marzo de 2023. Ana Urkiza, Presidenta de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, y David Taberna, Director de El Diario Vasco, han firmado hoy un convenio con el que ambas entidades manifiestan su deseo de colaborar en la promoción del talento y en el intercambio de conocimiento en sus respectivas áreas.

El convenio, con una duración de tres años prorrogables, establece un marco de colaboración orientado a la divulgación del trabajo desarrollado por Eusko Ikaskuntza con rigor y precisión para hacer llegar a la sociedad aquellas cuestiones que afectan especialmente a su situación socio-cultural. Del mismo modo, ambas entidades consideran oportuno tejer una red de contactos cualificados que sirvan para ahondar en contenidos de rigor y calidad y que permitan dar continuidad al compromiso informativo de El Diario Vasco.

Tal como se detalla en el anexo, El Diario Vasco informará sobre las principales actividades y proyectos de Eusko Ikaskuntza en euskera y castellano, y dará cobertura al próximo Congreso de Estudios Vascos, previsto para 2024. Por su parte, Eusko Ikaskuntza nutrirá al diario con contenidos en forma de entrevistas o artículos de opinión, y ayudará a identificar aquellas personas expertas que puedan profundizar en los temas que se determinen.

El convenio contempla que representantes de El Diario Vasco y de Eusko Ikaskuntza atenderán y participarán en las comisiones de trabajo que se convoquen como modo de contribuir a la calidad académica, a la aplicación de metodologías de investigación innovadoras y pertinentes, así como a la viabilidad de los proyectos. También se constituirá una comisión de seguimiento del convenio que se reunirá mínimamente una vez al año.